

IZURDEAK

Igor Gorriti

Usurbil, 15 urte

Behin batean Ipar-Buruan haizea zer egin ez zekiela zebilen. Hotza hotzagoa zen, elurra elurragoa, zuria zuriagoa. Zer aldatu ez zekien eta hegoaldera begira-begira geratu zen une batez. Bere beso luzeak luzatu zituen luze-luze eta han nonbait epeltasuna somatu zuen. “Epeltasuna? Ez da posible!” Eta txistuka hasi zen haserre, berriz ere bazter guztiak hotz-hotz eginda utzi zituen arte. “Ez da munduan mugarik nire beso luze hauek geratuko dituenik”, esaten zuen eta beherago eta oraindik beherago luzatzen zituen; batzuetan haserre besteetan barrez, denak hozten zituen eta egun batean Euskal Herrira iritsi zen. Iritsi eta pasa egin zen, baina gure historia, Hondarribiko hondartzan pasa zen.

Mikel bere aitarekin paseatzera irten zen. Lepo-koari bi buelta eman zizkioten, hotz handia egiten baitzuen. Espigoiko bidea hartu zuten; ezkerrean itsasoa eta eskubian merengezko tartaren itxurazko hondartza. Oraindik inork ez zuen zapaldu, akaso txakurren batek. Beraien aurrean zegoen itsasoa. “Aita, begira, saltatu egin du, nik ikusi dut!!”.

Aitak ez zuen ezer ikusi, baina adi-adi geratu zen Mikelek esandako lekura begira. Eta bai, arrazoi zuen, salto bat eta beste bat, piskanaka-piskanaka

hurbiltzen ari ziren. Bi izurde ziren. “Izurdeei ez zaie bakarrik ibiltzea gustatzen, oso jostalariak dira” –esaten zion aitak Mikeli, eta itsas-barrenean barku bat ikusten dutenean bere atzetik joaten dira kilometroetan, salta hemen eta salta han, “Kaixo” esan nahian bezala.

– Orduan, orain kaixo esaten ari zaizkigu aita! Seguraski ikusi egin gaituzte.

– Bai, bai, horrela da, baina hobe lukete hemendik urrutira joango balira.

– Zergatik?

– Begira, izurde hauek hotzari ihes egiten etorriko dira, baina hotzak ez ditu itsasoko urak bakarrik jelatzen; hotzik gaiztoena gizonen bihotzak jelatzen dituen da, eta gaitz horrek jotako gizon batek izurde hauek ikusten baditu, hil egin nahiko ditu.

Hori entzun eta gure Mikelek ez zuen handik alde egin nahi. Izurdeak zaintzen geratu nahi zuen, baina ez zen posible. Ama zain zegoen eta gainera hotz handia egiten zuen.

Hurrengo egunean eskolara joan zenean, andereñoak esan zuen, goizean goiz, hondartzatik oso hurbil izurde bat harrapatu zutela. Mikelek eta bere gelako guztiek pena handia hartu zuten, pena eta haserrea. Andereñoak, orduan, istorio bat kontatu zien, benetan gertatutako istorioa.

Ba omen zen itsasoan, urruti, barku askok egiten zuten bidean leku txar bat, oso arriskutsua, bertan zeuden arkaitzak ondo ikusten ez zirelako, ezen gehienetan urak estaltzen baitzituen. Leku txar horretara iritsi baino lehen izurde bat azaltzen

omen zen. Itsasuntzi aurrean jarri eta bidea erakusten omen zien arriskua bukatu arte. Itsas-gizonek oso maitea zuten izurdea.

Behin, ordea, bihotz hotzeko eta esker txarreko gizon batek izurdea ikusi eta arpoia bota omen zion; izurdea desagertu egin zen ur handi haietan.

Egunak joan, egunak etorri, bidaiak joan, bidaiak etorri, izurdea ez zuen inork gehiago ikusi. Egun batean, ordea, arpoilari gaizto-gaizto hura itzuli zen bide berdinetik, eta hara non azaltzen den izurdea itsasuntziaren aurrean besteetan bezala bidea erakutsi nahian. Arpoilariari ia begiak lekutik atera zitzaizkion izurdea ikusterakoan. “Bidea erakusten utziko diot aurrera”, –pentsatu zuen, “gero botako diot arpoia eta...”

Ez zuen gehiago arpoirik bota, ordea, izurdeak bide ona erakutsi ordez, zuzen-zuzenean harkaitzeta bideratu baitzuen itsasuntzia.

Mikelek, etxera itzuli zenean, aitari kantatu zion istorioa. Berak oraindik ez zekien hori baino harri-garriago izango zela berari gertatu behar zitzaiona.

Mikelek ez zion beldurrik hotzari, ezta iparburuko haizearen beso luzeak bidaltzen zituenari ere. Amak bai, baina berak ez. Horregatik meriendatu eta gero, berokia, txanoa, eskularruak eta lepokoa jarri eta kalera joan zen. Atarira iristean aitari ez ziola itxoin konturatu zen, baina ez zitzaion Mikeli pazientzia izpirik geratzen eta ohartu baino lehen espigoirako bidea hartu zuen.

Hordartzak galdua zuen merengezko tartaren itxura, baina Mikelek begiak urrutiago jarrita

zituen, itsasoan. Itsasoak ate zabal-zabala zirudien, inoiz irekiko ez zen berunezko ate zabala. Soinu bat entzun zuen orduan; inoiz entzun ez zuen soina; itsaso barrenetik zetorrena; atearen bestaldek; behin eta berriz, soinu bera berriro eta gero eta ozenago. Mikelek begiak belarriak baino zabalago zituen, begietatik ere entzutea balu bezala...

Zass! Plass! Zass! Plass! Han zegoen, berarengandik oso hurbil, jadanik, jauzika. Izurdea zen.

Mikelek maite egin zuen izurdea eta aurreko egunean baino gehiago maite gainera, izurdeak zituen pena guztiak ezagutzen baitzituen: urruti zegoela, laguna galdu zuela... Baina nola hitz egiten zaio izurde bati? Mikelek ez sentitu ezetz bakarrik esan nahi zion, berak ere maite zuela eta laguna zela eta beste gauza asko. Baina nola?

Zass! Plass! Zass! Plass! Izurdeak orain dantza egiten zuen. Bai, bai, ziur! Pozik zegoen eta momentu batean Mikel eta izurdeak ia berdin-berdin egiten zuten barre.

Izan ere, pozak eta penak, gorrotoak eta maitasunak, ez dute hitzen beharrik, sentitu egiten dira, airean daude, bi lagun hauen artean zeuden bezalaxe.

Mikel uretara bota zenean, izurdeak bere bizkarrean hartu zuen eta denbora luzez jolastu ziren. Hondarribia oso urruti geratu zen.

“Zass! Plass! Zass! Plass! Noriatan baino hobeto! Eta gainera busti egiten naiz!” –esaten zuen Mikelek. Gero izurdeak barrura egiten zuen, hondora jotzen zuen eta bat batean, ur epel-epela aur-

kitzen zuten. Ur epel haietan arrain pila bat egoten zen meriendatzen. Gutxienez hori pentsatzen zuen Mikelek, ahoa zabaldu eta itxi, zabaldu eta itxi egiten baitzuten.

Han behean ez zegoen eguzkiaren argirik, baina iluntasun osorik ere ez. Milaka arrain fluoreszente zebilen: arrain gorriak, horiak, berdeak, urdinak, denak fluoreszenteak itsaso hondooan, itsaso beltzaren barnean.

Eta gora egin zuten berriz ere. Hara! Aldaketarik ez. Itsas gainean ere gaua zen eta gain gainean, arrainik ez! Baina argi fluoreszenteak bai! Izarrak ziren noski. Hain urruti daudelako denak ikusten ditugu zuri-zuriak. Ene! Baina keinu haiek? Ez ziren zuriak, ez gorriak; berdeak ziren! Barku bat zen.

Izurdeak bi aldiz pentsatu gabe bide hura hartu zuen eta Mikelek “ezetz eta ezetz, mesedez ez!”. Barkuaren atzetik ez joateko eskatu zion. Auskalo nortzuk ziren. Eta bihotza jelatuta bazuten, zer?

Izurdeak horrela esan zion orduan, irribarrez “Baina Mikel guk elkarri ez diogu baldurrik, horregatik egin gara lagun handiak. Probatu egin behar izaten da, saiatu. Eta badakizu? Batzuetan jela urtu egiten da eta...” Flap!!! Sare handi batek harrapatu zituen bi lagunak.

Marinelen poza ala harridura, ez dakigu oraindik zein izan zen handiagoa. Ezin sinetsi zuten begien bistan zutena. “Badugu izurde istorio berri bat” –zioten bere artean. “Hau ez dut uste inork sinetsiko digunik, ordea”.

Aita eta ama etorri zitzaizkion burura Mikeli. Larritu ote ziren? Berandu zen. Sinetsiko ote zioten? Kezkatzen hasi zen...

Izurdeak berriz ere hitz egin zuen: “Mikel, ez zaitez kezka horrela. Aitak eta amak ulertuko dute. Badakizu? Txikiak zirenean, aspaldi, neuk erakutsi nien itsasoa, gaur zuri erakutsi dizudan bezala”.